

# HOMEOPATIA,

## Zer da medikuntzaren adar hau?

Anselmo Barandiaran


Samuel Hahnemann-ek sortu zuen homeopatia. Prussiako Meisen-en jaio zen 1755.eko apirilaren hamarrean. Farmazia, kimika eta toxikologiako ezagumendu sakonak zituen. Sendagile moduan zenbait urtez lan egin ondoren, lanbide hori utzi egin zuen. Bere idatzietan dioenez, sendatzeko zituen bitartekoen urritasunagatik eta drogen eragin zehatza ez jakiteagatik besteak sendatzeko gai ez zela sentitu zuen eta horregatik utzi egin zuen medikuntza.

Ondorengo urteetan itzulpenak egitea ogibide harturik lan egin zuen. Egun batean kininaren propietate toxikoak buruzko Cullen doktorearen Medikuntza tratatua itzultzen ari zelarik, harrituta gelditu zen. Tratatuan esaten zenez, substantzia horrek dosi toxikoetan aldizkako sukarra sortzen du, baina substantzia berori aldizkako sukarra sendatzeko ere erabiltzen da.

Errebelazio honetatik abiatuz, Hahnemann droga hau bera hartzen hasi zen eta bere lehenengo intuizioa baieztatzen joan zen denboraren poderioz. Saiakuntza hau beste pertsonekin esperimentatu zuen eta emaitza bera lortu zuen. Saiakuntza hori oinarritzat hartuz, ondorengo printzipio hau ezarri zuen: Sukarrak desagiten dituen kininak, sukarraren itxurak sortzen ditu pertsona osasuntsuarengan.

Kinina ondoren beste substantziekin (sufrea, belladonna, pulsatilla, etab.) saiatu zen, emaitza bera lortuz. Horrela gaixotasuna eta sendagaiaren artean dagoen etengabeko erlazioa egiaztatzen eta honako lege hau ondorioztatu zuen:

Pertsona osasuntsuarengan sintomak sortzen dituen substantziak, sinto-



Samuel Hahnemann

ma berauek aurkezten dituen gaixoa senda dezake.

Antzekotasunaren legea da homeopatiaren lehen printzipio nagusia.

Askotan droga bat hartuta, oso dosi txikietan bada ere, droga horren

eragin toxikoak esperimentatzailerengan gaizkoadura txar baten eran irauten duela egiaztatzen du Hahnemann-ek. Beraz gero eta toxiko-kantitate txikiagoak erabiltzen ditu eraginkortasun terapeutikoa galtzeko arriskuan jarritz.

Baina une honetan bere bigarren aurkikuntza handia egin zuen: disoluzio bakoitza gogorki astinduz (sukuzioa), gero eta toxikotasun txikiagoko baina indar handiagoko sedagaiak lortzen du. Beraz sendagai homeopatikoa substantzia diluitu eta dinamizatu osatuta dagoela esan dezakegu. Hau da homeopatiaren bigarren printzipio nagusia.

Pertsona osasuntsuarengan egindako saiakuntzak

Pertsona osasuntsuarengan substantzia ezberdinekin egindako saiakuntzari patogenesia deitzen zaio. Sendagai baten patogenesia, sendagai hori hartzean pertsona osasuntsu batek esperimentatzen duen sintoma-multzoa da. Homeopatikoki prestatzeko sendagaiak hartzean aldaketa dinamiko gertatzen da pertsonarengan. Aldaketa dinamiko hau, sintometan erakusten da. Esate baterako, Puhsatilla hartzen badugu, aire za-

balean egoteko gogoa, aho lehorra egarrik gabe, gaizkoadura leku itxietan,

nahigabeko negarra, hobekuntza kontso-latzean, inbidia, zelak, etab. esperimentatzen ditugu. Hori gure energiaren

aldaketa dinamiko litzateke. Gaixo kon-tsideratzen dugun pertsona sintoma beroriekin badatorkigu antzekoa izango zaion sendagai hori emango diogu eta bere oreka psikofisikora itzuliko du.

Homeopatiak, lehenengo sendagaiak pertsona osasuntsuarengan duen eragina aztertzen du, ondoren gaixoari aplikatzeko. Gizakiarengan, saiakuntzetan erabiltzen diren animaliek erakutsi ezin dezaketeen erreakzio subjektibo asko dago.

### Sendagai bakarra

Homeopatian sendagai bakar batek gaixotasunaren sintoma guztiak sendatzen ditu eta bakarrik ematen da.

Alopation (Medikuntza arruntean) ez bezala, homeopatian ez da sengadai-aldaketa edo polifarmazia erabiltzen. Aldi bakoitzean Hahnemann-ek sendagai bakarra erabili bait zuen. Hahnemann ez zegoen polifarmaziarekin ados, elkarrekin erabilitako bi sendagairen eragina ezin zela aurrikusi uste zuelako; bakoitzaren eragina neurri handi batean ezezaguna denean batez ere. (Beraz aldi bakoitzean sendagai bakar bat hartu behar da eta ez bi edo hiru elkarrekin).

Hahnemann-en lanaren mamia, sintomak edo gaixotasunak sendatzea garrantzitsuena ez izatea da; gaixoa ulertzea baizik.

Tratamendua ez dagokio organo berezi bati; berezkoak diren jarauntsia, konstituzio, mota morfologiko, izaera eta psikismoa duen ingurune ekonomiko eta sozial konkretu batean bizi den pertsonari baizik.

### Bizi-printzipioa

Hahnemannek, berak Bizi-printzipio deitzen duen gizakiaren ikusmolde energetikoa garatzen du. Gaixotasuna Bizi-printzipio honen anabasaren ondorio da eta printzipio hau berrezarri gabe ezin da osasuna berreskuratu. Hahnemann-ek ikuspegitik izakiak animatzen dituen eta beren ekintzak zuzentzen dituen energia da. Bizi-energia honek, osasun-egoera egokia egon dadin nahi-taezkoak diren ordena eta armonia funtzionala mantentzen ditu. Bizi-indar hau aldatzen denean, nahaste funtzionalak



Hahnemann-ek emandako diluzio infinitesimalen printzipioak, hartutako substantzien kantitatea asko txikitzen du eta hauek eraginkorrak dira.

### Bizi-energiak, osasun-egoera egokia egoteko ordena eta armonia funtzionala mantentzen ditu.

sortzen dira eta ehunen aldaketak izaten dira gero. Baina luze igaro daiteke gorputzean kalte organikorik gertatu gabe, bizi-indar horren anabasa besterik ez dagoelarik. Esate baterako, lehenengo aldiz gibel-kolikoa sufritzen duen pertsona, une horretatik aurrera kontsideratzen da gaixo. Hala ere badira hilabeteak, urteak beharbada, gaixo zegoela eta kolikoa gertatu arte azaldu ziren sintoma anormalei ez zitzaien kasorik egin. Hau da, kolikoa askoz ere sintoma ikusgarriagoa delako eta gaixotasunaren etapa lesionalaren hasiera ikuskorra markatzen duelako hartzen da gaixotzat.

Bizi-indarraren anabasa hau kausa askok sortua izan daiteke eta sintoma-multzo baten bidez azaltzen da. Sintoma horiek, aldatutako bizi-indar hori birordenatzeko baliagarri zaizkigu, kalte organikoak azal daitezkeen eragotziz.

Hori lortzen ez bada, bizi-

-indarraren anabasa funtzio eta ehunen aldaketa patologiko bilakatzen da.

Beraz gaixotasun lokalak (hepatitisa, amigdalitisa, artrosisa, etab.), anabasa dinamiko honen adierazpenak dira. Gaixotasun hauek anabasa zuzentzeaz kezkatu gabe kentzen badira, zauri organikoa sendatua izango dugu, baina ez gaixoa; bizi-indar desorekatuarekin jarraitu eta geroago desoreka horren ondorioz gaixotasun gehiago jasango bait ditu. Esate baterako: pomadaren bidez beste sintomei jaramorik egin gabe ekzema bat kentzea ez da sendatzea, zeren eta azala gaixorik badago organismo osoa gaixorik dagoelako da. Horregatik geroago gaixo bera asma duela itzultzen denean, zenbaitek gaixotasun ezberdina dela kontsideratzen du, baina oraingo honetan ere gaitza lehen zuzendu ez den bizi-indarraren desorekaren beste agerpen bat da; lehen pomadaz sintoma bakarrik tratatu bait zen, pertsona bere osotasunean batere kontutan hartu gabe.

Bizi-indarren alterazioa sintoma guztiengatik nabaritzen da. Hau da, gaixoak jasaten dituen ondoez sentsozial, psikiko eta fisikoengatik eta medikuak gaixoarengan ikus ditzakeen gauza guztiengatik, eta horrek, dagokion senda-





Botika homeopati-koek landa-  
retan  
dute  
jatorria  
%50ean.  
Hala ere  
animaliak  
(erleak esa-  
terako) eta  
mineralak  
ere erabil-  
tzen ditu.


Supresioen ondorio txarrak ezagu-  
tzeak, gaitz bema agertzen denean gai-  
xoaren aurrekinetan kendutako edo dio  
tenez sendatutako beste sintomatolo-  
giarik ba ote dagoen bilarazten digu.

Homeopatiak aspalditik ezagutzen  
du supresioaren ideia eta bere ondorio  
txarrak.

Efektu txar horiek era askotakoak  
dira eta ondorioak ustekabeak eta be-  
reziak izan daitezke. Adibidez, askotan  
jario baten supresioa edo erupzio bate-  
na, maiz asma, buruko mina edo erreu-  
matismoa agertzea dute ondorio.

Ezezagunagoa dena eta batez ere  
zientzia ofizialak onartzen ez duena,  
zera da: aldaketa askoz ere gehiago eta  
maiz askoz ere larriagoak, supresio ba-  
ten ondorio izatea.

Organismoan oraindik ezagutzen  
ez ditugun metastasi- edo substituzio-  
mekanismoak badirela onartu behar  
dugu. Baina nahiz eta ezagutu ez, meka-  
nismo hauek badira eta zentzu horretan  
behaketa sistematikoak egin beharrean  
aurkitzen gara.



Homeopatia marjinala da gure artean,  
baina erabilpen zabala du Frantzian.  
Botika homeopatiako komertzialak.

Jarioa moztu, haurtokia erauzi edo  
garatxo soil bat kendu baino lehen,  
aurkako eta aldeko arrazoiak baloratu  
behar ditugu. Bizi-indarraren gainaza-  
leko zatiaren desorekak sortutako sinto-  
mak (garatxo, jarioa, etab.) bakanik  
kontutan hartzen baditugu eta horiekin  
batera beti azaltzen diren sintoma sa-  
konagoak baloratzen ez baditugu, su-  
presio bat egingo dugu. Hori egin nahi  
ez badugu, gaixoaren aldaketa dinamiko  
eta sakona tratatu beharko dugu.

gaiak aurkitzeko bide bakarra izan behar  
du.

Gaixoaren berezitasun guztiei sen-  
dagaiaren egokitzapenaren behar honek,  
gaixo batzuk besteengandik bereizten  
dituzten maiz txikiak aztertzea  
behartzen du.

Beraz Homeopatian ez dago gai-  
xotasun bakoitzarentzat sendagai bat,  
zeren eta sintomatologiaren arabera sen-  
dagai ezberdinak eman diezazkiekegu  
gaixotasun bera duten bi pertsoneri.  
Esate baterako: amigdalitisa askatzen  
duten bi pertsonetan batek minduagoa  
eskuineko aldea izan dezake eta besteak  
ezkerrekoa. Gainera eskuin aldekoa oso  
suminkorra egongo da eta ezkerrekoa  
ez. Bat egarri izango da, bestea ez eta  
horregatik gaixo bakoitzaren berezita-  
sunak bilatu beharko ditugu sintoma  
guztiak estaltzen dituen sendagaia aur-  
kitu arte. Sendagaia ezberdina izango da  
gaixo bakoitzarentzat; bakoitzak gaixo-  
tasuna (amigdalitisa) bere erara adieraz-  
ten bait du, eta tratatu behar duguna ez  
da gaixotasuna: bere ezaugarri guztiekin  
gaixoa baizik.

Antzeko sendagaia gaixoa aurkez-  
ten dituen sintoma guztiei badagokie,  
hura hartzean sintoma-multzo osoa desa-  
gertu egingo da eta honekin batera  
gaixotasuna.

## Supresioa

Organismoak etengabe, bere bar-  
netik energia askatzen du; erdigunetik  
inguruetara. Bizi-energia honen adieraz-  
pen librearen aurka doan edozein

gauzak, bizi-disfuntzioa sortuko duen de-  
soreka energetikoa erakarriko du. Dis-  
funtzio horren ondorioz sintoma mor-  
doa agertuko da, hala nola: atsekabeak,  
depresioak, fobiak, inflamazioak, zorna-  
jarioak, ultzerak, tumoreak, etab. Beraz  
sintoma guztiek gaixoarengan jatorri  
amankomuna dute eta baita beren artean  
oso erlazio estua ere. Esate baterako  
ekzema, buruko mina, iluntasunarekiko  
beldurra, kontzientzi estutasuna eta  
amigdalitisa edukitzeko joera konekta-  
tuta egongo dira.

## Gaixotasuna sendagi bakarrez sendatuko da.

Zer da supresioa? Sintoma edo  
gaixotasuna era isolatuan sendatzea da,  
sintoma guztiak eta gaixoaren biopa-  
tografia kontutan hartu gabe.

Supresioaren ideia ez da arraroa  
Medikuntza Klasikoan. Medikuntza  
hori gaixoari traba egiten dion guztia  
kentzen saiatzen da eta sendatutzat har-  
tzen du supresioa egindakoan. Horrela  
sendatzen da beheakoa, opiozko senda-  
gai edo lehorgarrien bidez gaixotasuna  
kenduz; edo bozioa edo fibroma berauek  
erauziz sendatzen dira; edo ekzema po-  
maden bidez barruratuz sendatzen da.

Honenbestez gaixoa bere gaitzez  
sendatuta dagoela uste da, eta handik  
epe batera sintoma behiak aurkezten ba-  
ditu, kendutako gaitza eta agertu berri-  
aren artean ez da erlaziorik ezartzen.